

8 URTEZ AZPIKO EUROPAKO BATASUNeko XAKE TXAPELKETA. (2010eko abuztuaren 4tik 12ra jokatua).

Austriako Mureck hirian jokatu da. Mureck herri txikia da (1.600 biztanle inguru). Energia berriztagarriaz baliatzen da herria bere beharrak asetzeko.

9 txandatan 40 jokalaria aritu dira. Haien artean, Iñigo Ortin Blanco tuterarra, Santa Ana taldekoa.

Iñigo Ortin adin horretako Nafarroako txapelduna da. Espainiako Txapelketa ere irabazi zuen eta, horrela, Europako Batasuneko Txapelketa jokatzeko sailkatu zen.

AZKENEKO SAILKAPENA.

- 1) **Kirill Chukavin – (Estonia) (1.357 FIDE elokoa) – 7'5 puntu.**
- 2) Eszter Morvay (Eslovakia) (1.214) – 7'5 puntu.
- 3) **Iñigo Ortin Blanco (Nafarroa, Euskal Herria) – 6'5 puntu.**
- 4) Maximilian Paul Maetzkow (Alemania) – 6'5 puntu.
- 5) David Kelemen (Hungaria) (1.510) – 6 puntu.
- 6) David Gavrilescu (Errumania) – 6 puntu.
- 7) Adam Durica (Eslovakia) – 6 puntu.
- 8) Piotr Majocha (Polonia) – 5'5 puntu.
- 9) Jana Schneider (Alemania) – 5'5 puntu.
- 10) Gregor Globevnik (Eslovenia) – 5'5 puntu.

Orotara, 40 jokalaria.

IA AZKENERA ARTE, IÑIGO ORTIN TITULURAKO BORROKAN.

Laugarren txandan David Kelemenek eta **Iñigo Ortinek** berdindu zuten. Tuterarra, beltzekin aritu zen. Eszter Morvay neska eslovakiarra, Lorenzo Nagy hungariarra eta Iñigo Ortin bera ziren liderrak ordura arte. Lorenzo Nagy Morvayekin berdindu zuenez, 5 jokalaria geratu ziren buruan 3'5 puntuz.

Txapelketan, 15 neska aritu dira. Zorionez, mutilek eta neskek batera jokatu dute, zentzugabeko bereizketarik gabe.

Bosgarren txandan aurkari gogorra izan zuen **Iñigo Ortinek**: **Kirill Chukavin** estoniarra. Pieza txuriekin berdinketa egin zuen. Geroago, **Chukavin** Txapelketako irabazlea izan da.

Orduan Eszter Morvay jarri zen lider bakarra, 4'5 puntuz.

Seigarren txandan, emaitza hauek eman ziren: Dominika Ferkova – **Iñigo Ortin**, 0-1; **Kirill Chukavin** – Eszter Morvay, 1-0. Bost puntuz, hiru jokalaria geratu ziren buruan: Kirill Chuvakin, Iñigo Ortin eta Piotr Majocha poloniarra.

Zazpigarren txandako emaitzak: Piotr Majocha – **Iñigo Ortin**, 0'5-0'5; David Gavrilescu – **Kirill Chukavin**, 0'5-0'5. Eszter Morvay ere burura iritsi zen; lauak, 5'5 puntuz.

Zortzigarren txandako emaitzak: **Iñigo Ortin** – Eszter Morvay: 0-1; **Kirill Chuvakin** – David Kelemen, 1-0; David Gavrilescu – Piotr Majocha, 1-0.

Hortxe galdu zuen Txapelketa tuterarrak. Ez zuen etsi eta garaipen batekin bukatu zuen: **Iñigo Ortin** – Nicolas Moser (Austria), 1-0. Hirugarren postua lortu zuen horrela.

Eszter Morvay eslovakiarrak pieza txuriekin David Gavrilescu errumaniarra gainditu zuen, bigarren geratzeko.

Kirill Chukavin estoniarrak pieza beltzekin Jana Schneider alemaniarra garaitu zuen eta titulua eskuratu, Eszter Morvayekin puntuz berdinduta.

Maximilian Paul Maetzkow alemaniarrek pieza beltzekin Piotr Majocha gainditu zuen eta laugarren geratu.

2010-08-12.

Iturria: “<http://www.chess-results.com>” webgunea.